

Herria eta hizkuntza.

Hizkuntzari buruz : Frantziak ez ditu legez ezagutzen tokiko hizkuntzak edo manera "arin batez" bakarrik konstituzioan den 75-1 artikuluari esker (2008/07/23) . *Les langues régionales appartiennent au patrimoine de la France*. Eskualde hizkuntzak Frantziaren ondarean daude.

2. artikulua diolarik : « *la langue de la République est le français* ». Errepublikaren hizkuntza frantsesa da.

Konstituzio korteak argiki erran du ez zuela horrek "eskubide berririk" sortzen.

Frantziarengandik esperantza guti orduan, ikusiz gainera zer harrera txarra egin dion Eurokartari buruzko azken debataari.

Herriari buruz

Iparraldean hautetsiek hautatu zuten egituraketa, (Lurralde Kolektibitate Espezifikoa) baztertua izan da François Hollanden lehen gobernuaren garaian.

Bigarren gobernuak aldiz proposatu du HELEP (Herriarteko Lankidetzarako Erakunde Publiko) bakar baten antolatzea Iparraldeko lurralde osoan, orain 10 helep daudelarik.

Izena Euskal Herri Elkargoa.

Euskararentzat egitura berri honek ba ote du sentsurik?

Zer faltako zaio ?

Zer bilakatuko da Euskararen Erakunde Publikoa ?

Nork asmatuko du Biharko Hizkuntz politika ?

Zer leku izanen du gizarte zibilak ?